




**ISKRIBUZKO** batua egi-na dago. Irakurketa erregelak falta dira. Arazo batzuk badaude: testua nola irakurri behar den hizkera normalean, eta oso nabarmenki, zer egin kultur hitzen arlo zabalean. Oso jarrera kultista hartu dugu, antifonologikoa. Hitz gutxi balira problemarik ez legoke, baina asko direnez, arazo bihurtu dira.

Guzti honen aurrean, alde batetik fonemen balioa definitu behar da: nahikoa kontsentsua badagoenez, h-a ez ahozkatzea proposa dezakegu, argi eta garbi. *J* fonema berri, espainolaren *y* fonemaren antzekoa egitearen aldeko iritzia zabaldua dago eta hor gipuzkoarrek amore eman beharko dute.

Fonema elkarketekin



### TXILLARDEGI

Idazlea

zer egin? Hor dugu zezen nagusia. Nola markatu posizioa eta definitu azentu unitateak? Arazo honen argitzen asko aurreratu da azken urteotan, baina azentuaren arazoa bultzatu dutenek ez dute legetasun handirik Euskaltzaindiaren barruan. Bereziki euskaltzain osoak ez zaizkigu ikerkuntza honetan nabar-

mendu. Kontrazioa hor dago: ahozko euskaraz arduratzen direnak (gare-nok) ez dugu indarrik Euskaltzaindian.

Onartuko den bidea erabakiz gero, oso inportantea izango da gero eskola eta unibertsitate munduaren zeregina, herri mugimendua eta ahozko mass-mediara, irratiak eta telebista, batez ere. Urgentzia du gaiak, hogei urtez gaude zain eta erabakiak hartzeko garaia bada. Badago materiale eta datu mordoak. Posible da, lehen Arantzazun idatziaren batua egin zen baino errezago behar bada, pauso bat ematea.

Kezka dutenek, ahozko euskara ikertzen ari direnek, beldurrak kendu eta gauzak proposatu behar dituzte.

**Iaz aurkeztu zen Orotariko Hiztegiaren trantsizio alea, Mitxelena egindako lan eskergaren testigantza eta hutsune handi baten betetzera datorrena.**

Onaandia, Damaso Intza, Justo Mokoroa... Euskera-zaintza sortu zen. H-aren aurkako mezua, «*euskara hori ez dela herrikoa*» eta antzeko argudioak jokaera zakarragoez ere jantzi dituen. Murruak zutik dirau oraindik ere.

### Batu eta gero

**B**atuaren gurpilean berri-z, azpian harrapatu gertatu ziren euskalkiak, unti honen egitura sendotzeko Euskaltzaindiak hobetsi ez dituenak, galtzailatzat jo daitezke, egun: bizkaiera nagusiki, zuberera eta ekialdekoak. Gipuzkerak hartu du koroa eta batuta. Hizkuntza idatzirako ere-

duak, zalaparta gehiagorekin edo gutxiagorekin, arrasto sakonik utzi du, baina, urteotan. Bergarakoa eta gero, testuliburuetan, literaturan, aldizkarietan, EITBn edota administrazioetan, inoiz guztiz laxatua egon daitekeen lokarriaren itxura hartzen bazaio ere, helburuetan eta atxikimenduan, lotura hori gero eta indarrenago baita. Laxatua diogu, euskara estandarra —batuaren *label*-a darmana —tajutzeko orduan sortu diren premiei Akademiak erantzuten ez duelako jakin, hainbatetan. Aditzak baturik ditu erroak (hitanoaren kasuan erabakirik ez dagoen



arren), deklinabidea eta gramatika arautuak dira, gomendioak egiten zaizkigu (tronpatzen ere ikusiak ditugu, nahiz eta grekera klasikoa defendatzen duen Jakintza Baitha-koentza tronpatuegi dabiltzan)..

Besteren eskuetan osatu da, hala ere, hiztegi gintza. Ahozko eredurik ez dago premiazkoa denean. Euskararen ikurrina mastaren gorenera eramateko ez da nahikoa jada, Arantzazuko miraria. Ekin eta jarrai ■